

ZUK ERABAKITZEN DUZU

0. Edukiak

Bazterkeria.
Kirola.

1. -Definizioa

Gertaera sozial batena aurrean, gutako bakoitzak duen ardura sozialaren inguruan eztabaida bat sortzea.

2. -Helburuak

- Eztabaidatzen eta elkarrizketa egiten ikasi.
- Kirolarekin lotura duten gertakari historikoak ezagutu kontrabalioren aurrean espiritu kritikoa sustatuz.

3. -Partaideak

10 partaideetatik gora.
Adina: 14 urtetatik gora

4.- Materiala

Ez da materialik behar.

5.- Hasierarako oharrak

Talde handia.

6. -Garapena

Bakarka testua irakurri ondoren, horren inguruko eztabaida burutuko da.

Testua:

Frederic 1936an Berlingen ospatuko diren joko olinpikoetan parte hartu nahi duen gazte bat da. Baina herri honetako azken gertakariak Adolf Hitler jartzen dute boterean eta berak, politika antisemita jarri du indarrean eta ondorioaz, judutar diren pertsona guztiak baztertuak izan dira. Frederic politika horrekin eta nazi ideologiarekin ez dator bat; izan ere, bere ustetan, pertsona guztiak berdinak dira arraza eta sinesmenen gainetik. Ez daki zer egin. Alde batetik beldur da, bere partehartzea gaizki ulertua izatea, hau da, politika hau babesten duela ulertzea; eta ez parte hartzeak berriz, sistemaren aurka dagoela adierazi dezake. Bestalde, joko olinpiko batzuetan garrantzitsuena alderdi politikoa ez dela uste du baizik, parte hartzea eta mundu osoko kirolarien elkarbizitza.

7. -Ebaluaketa

Zer egin beharko luke kirolari guztiek? Nola sentitu daiteke kirolari hau joko olinpikoetan parte hartzeko aukera duen unean? zergatik ez dago judutarren kontrako politika honekin? Ze iritzi duzu lelo honen inguruan "berdinak gara, ezberdinak gara"? zein kirolarik bizi izan zuen egoera antzekoa, hainbat probetan parte hartu eta diktadorearen haserrealdia eragin zuena? Interneten bilatuko dugu galdera honen erantzuna.

8.- Iturria

<http://www.amnistiacatalunya.org/edu/material/htm/tudecidesmoracarranza.html>